

AUZO KONPOSTAREN EGOERA ASTIGARRAGAN



Indizea

I. Konposta egiten duten partaide kopurua...4

II. Konpostaren ezaugarriak.....5

II.I. Ezaugarri fisiko-kimikoak.....6

II.II. Ezaugarri kimikoak.....7

II.III. Ezaugarri mikrobiologikoak.....8

II.IV. Heldutasun parametroa.....8

II.V. Ezaugarri organoleptikoak.....8

III. Ondorioak.....9



ZORIONAK eta MILA ESKER **parte-hartzaile guztiei!**

Lehenik eta behin, Astigarragako udalak eskerrak eman nahi dizkizue 2020. urtean auzo-konposta egiten jarraitu duzuenoi eta auzo-konposta egiten hasi berriak zareten guztioi. Nahiz eta urte zaila izan den, zuetariko bakoitzaren konpromezuari esker emaitza paregabeak lortu ditugu.

Mila esker eta jarraitu horrela!



I. KONPOSTA EGITEN DUTEN PARTAIDE KOPURUA

Gaur egun **123** familiek parte-hartzen dute Astigarragan zehar kokatuak dauden **5** auzo-konpostagailuetan eta **295** pertsona ingururen biohondakina konpostatzen da bertan.

Egunero, **65** kilogramo inguru biohondakin konpostatzen direla kalkulatu da eta urtean **23,77** tona.



Bestetik, auto-konpostaren bidez beste **132** familia ari dira etxean haien biohondakina konpostatzen (**317** pertsona inguru) eta egunean **70** kg (urtean **25,5** tona) konpostatzen direla kalkulatu da.



Beraz, Astigarragan guztira, **612** herritarrek sortutako biohondakina konpostatzen ari garela esan daiteke, erroldatutako biztanleen %8,5.

Biohondakin kantitateei dagokienean, guztira **49,27** tona konpostatzen direla estimatu da urtean.

II. KONPOSTAREN EZAUGARRIAK

	Astigarragak o auzo- konpostagail uetako konposta	Merkatuan dauden konposten konposizio estandarra (1)	Fraisorok zehaztutako konpost analisien ohiko balioak
pH	7,4	7,6	6,5-8,5
EE ($\mu\text{S}/\text{cm}$)	2,21	6,83	0,5-4
Itxurazko dentsitatea (g/L)	1380	-	-
Hezetasuna (%)	63,8	40	30-60
Materia organikoa (g.l.n %)	55,7	46,7	30-60
C/N	14	12,6	44105
Ntot (%)	1,97	2,1	-
P205 (g.l.n %)	1,03	1,8	0,4-1,2
K20 (g.l.n %)	1,28	1,3	0,5-1,3
Ca0 (g.l.n %)	7,37	8,54	-
Mg0 (g.l.n %)	0,63	1,13	-
Zn (mg/Kg g.l.n.)	320	386,14	-
Cu (mg/Kg g.l.n.)	30,5	174,65	-
Pb (mg/Kg g.l.n.)	35,6	76,98	-
Cr (mg/Kg g.l.n.)	14,1	52,93	-
Ni (mg/Kg g.l.n.)	10,6	28,96	-
Cd (mg/Kg g.l.n.)	<0.7	0,89	-

Konpostaren ezaugarriak sakonago ezagutu asmoz, 8-9 hilabetetan ondutako konposten laginak Fraisoro ingurumen eta nekazal laborategira eta Neiker-eko baliabide naturalen kontserbaziorako laborategira bidali ziren analizatzera. Ondorengo taulan ikus ditzakegu emaitzak. Eta konparatu ahal izateko, merkatuan dauden konposten konposizio estandarren datuak eta Fraisorok zehaztutakoak azaltzen dira.



II. I. Ezaugarri fisiko-kimikoak

✓ pH egokia du konpostak, landareentzako forma erabilgarrian dauden oinarritzko elikagaiak eskuragai daudelarik.

✓ Eroankortasun elektrikoaren emaitza (EE) ere, parametro egokien barruan aurkitzen da. Hala ere, gomendagarriagoa litzake konposta ongarri bezala erabiltzea eta ez soilik sustratu bezala.

✓ Itxurazko dentsitatea eta hezetasun maila altua du. Egia da maneiua eta garraioan hezetasun maila baxua izatea gomendagarria dela baina organismo batzuen presentzia bermatu nahi bada (zizareak, esaterako), hezetasun maila altua izatea ona da.



II. II. Ezaugarri kimikoak

✓ **Materia organiko portzentaje altua** du eta ezaugarri hau ezinbestekoa da lurraren emankortasuna epe motz zein luzera bermatzeko.

✓ **C/N erlazioa ohiko baloreetan** aurkitzen da.

✓ **Nitrogeno kantitate egokiak** ditu eta beraz, epe luzean egon daitekeen nitrogeno kantitatea bermatu dezakegula esan nahi du.



✓ **Fosforo eta potasioaren kasuan ere ohiko baloreak** neurtu dira eta nahiz eta kaltzio eta magnesio ehunekoa baxuagoa izan (merkatuan dauden beste konpostekin alderatuta), ohiko baloreetan aurkitzen da.

✓ **Metal astun kantitatea** merkatuan dauden konposten batz besteko kontzentrazioarekin alderatzen badugu, nabarmen baxuagoa da.



II. III. Ezaugarri mikrobiologikoak

✓ Konpostatze prozesuan eman diren tenperatura altuei esker, konposta guztiz higienizatu da. Ez da organismo patogenoen presentziarik detektatu.



II. IV. Heldutasun maila



✓ Analizatutako emaitzek erakusten dute konposta, prozesuan zehar ondo ondu dela eta heldutasun maila egokia duela.

II. V. Ezaugarri organoleptikoak

✓ Ez du usain txarrik, “lur freskoaren” usaina du.

✓ Kolore marroi-beltzekoa da.

✓ Ez dira jatorriko materialak identifikatzen (deskonposizio geldoagoa duten biohondakinen kasuan izan ezik: hezurak, oskolak, etab.).



III. ONDORIOAK

Auzo-konposta sistema deszentralizatu eta merke bat denez, abantaila asko eskeintze ditu:

✓ Hondakinen kudeaketako kostu ekonomikoak aurrezten dira: biohondakinen bilketa, garraio eta tratamendu kostuak murrizten direlako.

✓ Garraioari eta tratamenduaren kostu energetikorik ez dagoenez, ingurumena gehiago zaintzen da (atmosfera isuritako CO₂ kantitateak murriztea lortzen da, besteak beste).



✓ Sozialki herritarren inplikazio zuzena eta sentsibilizazioa lantzen da.

✓ Herrian bertan erabiliko den kalitatezko ongarri organiko bat lortzen da, konposta.



ZORIONAK eta MIILA ESKER PARTE- HARTZAILLE GUZTIEI!

hondakinak@astigarraga.eus; 617 295 378 / 900 102 838

